
















# 2021

## IRUDITAN
## EN IMÁGENES

TUlankide

# 20 FOTOS DEL 21

# 20 ARGAZKI 21EKOAK

HA SIDO UN AÑO DE CLAROSCUROS Y MEDIATIZADO EN GRAN MEDIDA POR LA PANDEMIA, QUE HA VUELTO A RESURGIR CON FUERZA EN LA ÚLTIMA PARTE DEL EJERCICIO. TODO PRESAGIABA UNA VUELTA PAULATINA A LA NORMALIDAD CUANDO DE REPENTE LA VARIANTE ÓMICRON SE EXTENDIÓ POR MEDIO MUNDO RESCATANDO VIEJOS FANTASMAS Y MIEDOS DEL PASADO MÁS RECIENTE.

“VACUNA” HA SIDO LA PALABRA DEL AÑO –EN 2020 LO FUE “CONFINAMIENTO”– PERO TAMBIÉN HEMOS CONVIVIDO CON OTRAS COMO “NEXT GENERATION” O “MICROCHIPS” Y HEMOS TRAÍDO DEL OLVIDO COLECTIVO UN TÉRMINO ECONÓMICO INQUIETANTE: “INFLACIÓN”.

EN NUESTRO ÁMBITO COOPERATIVO HAN OCURRIDO MUCHAS COSAS, PERO, EN FORMA DE RESUMEN, HEMOS SELECCIONADO 20 IMÁGENES DEL 21.

URTE HONETAN ARGILUN ASKO IZAN DITUGU, ETA, NEURRI HANDI BATEAN, PANDEMIAK BALDINTZATU DU, BERRIRO ERE INDARTSU SUSPERTU BAITA EKITALDIAREN AZKEN ZATIAN. BAZIRUDIEN PIXKANAKA NORMALTASUNERA ITZULIKO GINELA, OMICRON BARIANTEA MUNDUAN BARRENA ZABALDU ZEN ARTE, IRAGANEKO MAMU ETA BELDUR ZAHARRAK AZALERATUZ.

“TXERTOA” URTEKO HITZA IZAN DA –2020AN “KONFINAMENDUA” IZAN ZEN–, BAINA “NEXT GENERATION” EDO “MIKROTXIP” BEZALAKO BESTE BATZUEKIN ERE BIZI IZAN GARA, ETA AHAZTUTA GENUEN HONAKO TERMINO EKONOMIKO KEZKAGARRIA AZALDU DA BERRIRO: “INFLAZIOA”.

GURE KOOPERATIBA-ESPARRUAN GAUZA ASKO GERTATU DIRA, BAINA, LABURPEN GISA, AUKERATU DITUGU HONAKO 20 ARGAZKI 21EKOAK.

# EKIOLA: ENERGIA COOPERATIVA

EXPERIENCIA PIONERA DE GENERACIÓN Y GESTION DE RENOVABLES A TRAVÉS DE PARQUES FOTOVOLTAICOS.

Krean, el EVE y MONDRAGON presentaron en Chillida Leku este proyecto con sello cooperativo, que posibilitará la participación ciudadana en la generación y gestión de energías renovables, a través de parques fotovoltaicos que se instalarán en pueblos y comarcas. Azpeitia fue el primer municipio en sumarse al proyecto y la fórmula ha tenido réplica en el estado a través de una alianza con Repsol, para alumbrar Ekiluz.

# EKIOLA: ENERGIA KOOPERATIBOA

ESPERIENTZIA AITZINDARIA ENERGIA BERRIZTAGARRIAK SORTU ETA KUDEATZEKO, PARKE FOTOVOLTAIKOEN BIDEZ

Krean, EVE eta MONDRAGONek energia berriztagarriei buruzko proiektu hau aurkeztu zuten Chillida Lekun. Herri eta eskualdeetan ezarriko diren parke fotovoltaikoen bidez energia berriztagarriak sortzen eta kudeatzen parte hartzeko aukera emango duen ekimena da. Azpeitia izan zen proiektuarekin bat egin zuen lehen udalerria, eta formula berriak erreplika izan du estatuan, Repsolekin aliantza bat eginda, Ekiluz argitzeko.

1








2

## ROSA CARABEL, DIRECTORA GENERAL DE EROSKI

### COMPROMISO COOPERATIVO, EXIGENCIA Y CAPACIDAD DE TRABAJO

Rosa Carabel, directora de Red Comercial durante el último periodo estratégico, asumió a principios de año la dirección general del grupo EROSKI. Rosa es una persona de la casa, que conoce bien el oficio y quienes la conocen subrayan su compromiso cooperativo, su enorme capacidad de trabajo, y un nivel de exigencia muy alto.

## ROSA CARABEL, EROSKIKO ZUZENDARI OROKORRA

### KOMPROMISO KOOPERATIBOA, EXIJENTZIA ETA LANERAKO GAITASUNA

Rosa Carabelek, Sare Komertzialeko zuzendaria azken aldi estrategikoan, EROSKI taldearen zuzendaritza nagusia hartu zuen urte hasieran. Rosa etxeko pertsona bat da, lanbidea ondo menperatzen duena, eta ezagutzen dutenek beren konpromiso kooperatiboa, lanerako gaitasun izugarria, jarrera eta eskakizun-maila oso altua azpimarratzen dituzte.

3

## MONDRAGON ASSEMBLY, PYME DE 2020

### COLOFÓN A UNA TRAYECTORIA

El reconocimiento se ofició en el Guggenheim, en el contexto de los premios "Euskadi Avanza" de El Correo y Banco Sabadell. Todo un hito para Mondragon Assembly, que pone en valor la trayectoria de la cooperativa además de subrayar su labor en 2020, desarrollando en tiempo récord un proyecto de líneas automáticas para la fabricación de mascarillas.

## MONDRAGON ASSEMBLY: ETE 2020 ONENA

### EGINDAKO IBILBIDEAREN AITORTZA

Ekitaldia Guggenheimen egin zen, El Correoren eta Banco Sabadellen "Euskadi Avanza" sarien testuinguruan. Mugarri bat izan zen Mondragon Assemblyrentzat, kooperatibaren ibilbideari balioa ematen diona, eta 2020an egindako lana goraipatzen duena, hau da, maskarak fabrikatzeko lerro automatikoen proiektuaren garapena.




4

## GOIMEK LLEGA A MARTE

AMARTIZA EN EL PLANETA ROJO DE LA MANO DE SENER

El 18 de febrero el robot Perseverance alcanzó la superficie de Marte para dar comienzo a la misión Mars 2020 de la NASA. En este viaje Goimek, empresa de mecanizados de alta precisión y grandes mecanizados perteneciente a Danobatgroup, colaboró en la fabricación de la antena del vehículo, de la mano de la ingeniería Sener.

## GOIMEK MARTERA IRITSI DA

PLANETA GORRIRA IRITSI ZEN, SENER ENPRESAREN BITARTEZ

Otsailaren 18an Perseverance robota Marteren azalera iritsi zen NASAren Mars 2020 misioari hasiera emateko. Bidaia honetan, Goimek, doitasun handiko mekanizazio-enpresak, roverraren antenaren fabrikazioan lagundu du, Sener ingeniaritza enpresaren bitartez.

## LAGUNARO SE PROYECTA A 2024

CON EL FOCO EN SU COLECTIVO, LA FORTALEZA DE LA ENTIDAD Y LOS RETOS DE LA SOCIEDAD

LagunAro encara el ciclo estratégico 2021/2024 con novedades que refuerzan el cuidado de su colectivo, la fortaleza de la entidad y su compromiso con los retos de la sociedad. Al cierre de 2020, contaba con 28.022 mutualistas, y un fondo patrimonial de 6.864 millones de euros. La asamblea, en formato presencial, tuvo lugar el 25 de marzo.

## LAGUNARO 2024RA BEGIRA

ARDATZ HARTUTA: BERE KOLEKTIBOA, ERAKUNDEAREN INDARRA ETA GIZARTEAREN ERRONKAK

LagunArok 2021/2024 ziklo estrategikoari begira, bereziki indartu nahi ditu kolektiboaren zaintza, erakundearen indarra eta gizartearen erronkekiko konpromisoa. 2020ko ekitaldiaren amaieran, 28.022 mutualista zituen, eta 6.864 milioi euroko ondare-funtsa. Batzarra, aurrez aurreko formatuan, martxoaren 25ean egin zen.

5



6

# BEXEN MEDICAL: 2021 REDONDO

## MASCARILLAS 24/7, VACUNAS Y PREMIO DE LA CÁMARA

En el primer versículo pandémico fueron las mascarillas –tras la instalación de las máquinas “made by Mondragon Assembly” en junio de 2020 y cuya producción repunta de nuevo ahora con la sexta ola–; luego el almacenamiento y gestión de la logística de las vacunas, y finalmente el premio a la empresa de Gipuzkoa de 2021. Un año redondo para Bexen Medical.

# BEXEN MEDICAL: 2021 BOROBILA

## MASCARILLAK 24/7, TXERTOAK ETA GIPUZKOAKO BAZKUNDEAREN SARIA

Lehenengo erronka pandemikoa maskarak izan ziren —2020ko ekainean “made by Mondragon Assembly” makinak instalatu ondoren, eta horien ekoizpena berriro ere seigarren olatuarekin gailentzen da—; ondoren, txertoen logistika biltegiratu eta kudeatu zen, eta, azkenik, 2021eko Gipuzkoako enpresarentzako saria. Urte borobila Bexen Medicalerako.








7

## CORONACIÓN, MÁS VERDE Y SOSTENIBLE

### FIN DEL PROYECTO EUROPEO SMARTENCITY EN VITORIA-GASTEIZ

El principal objetivo del proyecto es desarrollar un enfoque sistémico altamente adaptable y replicable para transformar las ciudades europeas en entornos urbanos sostenibles, inteligentes y eficientes en el uso de recursos. El barrio Coronación en Vitoria-Gasteiz ha sido una actuación de referencia en la que han participado Mondragon Unibertsitatea, Ondoan, LKS Infraestructuras IT y la Corporación MONDRAGON.

## CORONACIÓN, BERDEAGOA ETA JASANGARRIAGOA

### SMARTENCITY EUROPEAR PROIEKTUAREN AMAIERA, VITORIA-GASTEIZEN

Proiektuaren helburu nagusia ikuspegi sistemiko oso moldagarri eta erreplikagarria garatzea da, Europako hiriak hiri-ingurune jasangarri, adimentsu eta baliabideen erabileran eraginkor bihurtzeko. Gasteizko Coronación auzoa erreferentzia-jarduera izan da, eta Mondragon Unibertsitateak, Ondoan, LKS Infraestructuras IT enpresak eta MONDRAGON Korporazioak hartu dute parte.

8

## NUEVA PLATAFORMA DE FRESCOS DE EROSKI

### GESTIONA 400 TONELADAS DE PRODUCTOS DIARIAMENTE

Ubicada sobre una parcela de más de 27.400 metros cuadrados en el polígono industrial de Júndiz (Vitoria-Gasteiz), cuenta con 17.600 metros cuadrados refrigerados y dispone de treinta atraques para vehículos pesados que permiten la gestión diaria de más de 400 toneladas de productos frescos. La inversión ha sido de 20 millones de euros y trabajan alrededor de 150 personas.

## EROSKIREN FRESKOEN PLATAFORMA BERRIA

### EGUNEAN 400 TONA PRODUKTU FRESKO KUDEATUZ

27.400 metro karratu baino gehiagoko lursail batean dago, Jundizko industrialdean (Gasteiz). 17.600 metro koadro ditu, hoztuak, eta hogeita hamar atrakaleku ditu ibilgailu astunentzat, egunero 400 tona produktu fresko baino gehiago kudeatzeko. Inbertsioa 20 milioi eurokoa izan da eta 150 bat lagunek egiten dute lan.



9

## BEXEN CARDIO CUIDA EL CORAZÓN DE LOS ERMUARRAS

PRIMERA CIUDAD CARDIO
ROTEGIDA DEL ESTADO

El Ayuntamiento de la localidad vizcaína y Bexen Cardio unieron fuerzas para desarrollar el proyecto socio sanitario bautizado como “Ermua, ciudad cardio-protegida”. Una iniciativa pionera que ha supuesto la implantación en distintos puntos del pueblo de desfibriladores externos automáticos (DEAs) a pie de calle, disponibles las 24 horas, para atender cualquier incidente de naturaleza cardiaca.

## BEXEN CARDIOK “ERMUA, HIRI KARDIO BABESTUA” IZATEN LAGUNDU DU

ERMUA: AITZINDARIA ESTATU MAILAN
KARDIO-BABESEAN

Udalak eta Bexen Cardiok indarrak batu zituzten “Ermua, hiri kardio-babestua” izeneko proiektu soziosanitarioa garatzeko. Ekimen aitzindaria izan da, eta, horren ondorioz, herriko hainbat tokitan kanpoko desfibriladore automatikoak (KDA) jarri dira kalean, 24 orduz, bihotz-arazoren bati aurre egiteko.

10

## 11,3 MILLONES POR LA COVID-19

RESPUESTA EJEMPLAR DE LAS
COOPERATIVAS

Ese fue el importe que LagunAro compensó en 2021 por el 76% de las horas perdidas por un total de 4.476 personas socias de las cooperativas en 2020. Una cifra sin precedentes y una respuesta ejemplar de la entidad para hacer frente a una situación extraordinaria.

## 11,3 MILIOI COVID-19AGATIK

KOOPERATIBEN ERANTZUN PAREGABEA

Kopuru hori konpentsatu zuen LagunArok 2021ean, 2020an kooperatibetako 4.476 bazkidek galdutako orduen % 76 ordaintzeko. Aurrekaririk gabeko zifra bat eta aparteko egoera bati aurre egiteko entitateak emandako erantzun eredugarria.



## ANIVERSARIOS RESEÑABLES

ERREKA, ULMA, CIKAUTXO Y OSARTEN

En 2021 ha habido algunas cooperativas que han celebrado actos conmemorativos de sus aniversarios. Ha sido el caso de Erreka o de Ulma, ambas 60 años, de Cikautxo, 50, o de Osarten, 20 años. Zorionak!

## URTEURREN ESANGURATSUAK

ERREKA, ULMA, CIKAUTXO ETA OSARTEN

2021ean kooperatiba batzuek urteurrenak ospatu dituzte. Horren adibide dira Erreka edo Ulma, biak 60 urte, Cikautxo 50, edo Osarten, 20 urte. Zorionak!








12

# LA ONU, MONDRAGON Y LA PANDEMIA

EL APOYO MUTUO TIENE RESULTADOS

En un informe publicado en julio –Las cooperativas y el desarrollo social–, su secretario, António Guterres, ponía en valor el papel de las cooperativas durante la pandemia. MONDRAGON tenía una mención específica en el informe "por la utilización de sus fondos de reserva solidaria para apoyarse mutuamente y reasignar temporalmente a los trabajadores entre las cooperativas del Grupo para minimizar la pérdida de puestos de trabajo".

# ONU-NBE, MONDRAGON ETA PANDEMIA

ELKARRENGANAKO LAGUNTZAK ONDORIOAK DITU

Uztailean argitaratutako txosten batean — Kooperatibak eta gizarte-garapena—António Guterres idazkariak, kooperatibek pandemian zuten zeregina balioetsi zuen. MONDRAGON Taldeak aipamen berezia zuen txostenean, "elkarri laguntzeko erreserba solidarioko funtsak erabiltzeagatik eta Taldeko kooperatiben artean langileak aldi baterako berkokatzeagatik, lanpostuen galera minimizatzeko".

13

# LORAMENDI Y AURRENAK UNEN FUERZAS

NUEVO IMPULSO A LA COLABORACIÓN CON LA VISTA EN SUS CLIENTES

Apalancadas en el mantra "Juntos generamos mejores proyectos" ambas cooperativas iniciaron una nueva etapa de colaboración apostando por intensificar la intercooperación, priorizando la estrategia común de mercados y productos de futuro, así como el impulso de sinergias en todas las áreas. El proyecto Porsche ha sido uno de esos proyectos paradigmáticos.

# LORAMENDI ETA AURRENAK INDARRAK BATUZ

ELKARLANARI BULTZADA EMANEZ, BEZEROENGAN ARRETA JARRITA

"Elkarrekin proiektu hobeak sortzen ditugu" baieztapenean ainguratuta, bi kooperatibek lankidetza-etapa berri bati ekin zioten, lankidetza areagotzearen aldeko apustua eginez, merkatuen eta etorkizuneko produktuen estrategia bateratuari lehentasuna emanez eta arlo guztietan sinergiak bultzatuz. Porsche proiektua izan da proiektu paradigmatiko horietako bat.




## 14

## COPRECI-PLANETCARE, UNA ALIANZA POR LOS MARES

### LUCHA CONTRA LOS MICROPLÁSTICOS

A través de esta colaboración con PlanetCare, Copreci pone a disposición de los fabricantes de cualquier tipo de lavadoras las soluciones necesarias para evitar la contaminación por microplásticos de los mares y océanos. El objetivo es impulsar el desarrollo, la industrialización y la comercialización a nivel global de las soluciones de filtrado que se están desarrollando junto a PlanetCare.

## COPRECI-PLANETCARE, HITZARMENA ITSASOEN ALDE

### MIKROPLASTIKOEN AURKA

PlanetCare-rekin egindako lankidetza horren bidez, Coprecik itsasoetako eta ozeanoetako mikroplastikoen bidezko kutsadura saihesteko behar diren irtenbideak eskaintzen dizkie edozein motatako garbigailuen fabrikatzaileei. PlanetCare-rekin batera garatzen ari diren iragazte-soluzioen garapena, industrializazioa eta merkaturatzea bultzatzea da helburua.

## MAIER Y EL COCHE DEL FUTURO

### UN NUEVO ESPACIO PARA UN CAMBIO DE CICLO

El nuevo “Fab Lab” de Maier, presentado en noviembre, explorará nuevas capacidades de diseño e innovación en electrónica, óptica e iluminación y fabricación avanzada. Para el Grupo Maier supone el inicio de una serie de inversiones en el Maier Technology Centre, con un importe total de 6 millones de euros, que dará empleo a 50 profesionales altamente cualificados.

## MAIER ETA ETORKIZUNEKO KOTXEA

### GUNE BERRIA ZIKLO ALDAKETARAKO

Maierren “Fab Lab” berriak, azaroan aurkeztuak, elektronikan, optikan, argiztapenean eta fabrikazio aurreratuan diseinu- eta berrikuntza-gaitasun berriak aztertuko ditu. Maier Taldearentzat, Maier Technology Centre-n egingo diren inbertsioen hasiera da. Guztira, 6 milioi euro inbertituko dira, eta goi-mailako prestakuntza duten 50 profesionali emango die lana.

## 15



# JOSE MARI ORMAETXEA: TODA UNA VIDA COOPERATIVA

## BIOGRAFÍA DE UNO DE LOS FUNDADORES DE ULGOR

El 4 de noviembre se presentó la "biografía dialogada" de José Mari Ormaetxea, uno de los fundadores de la Experiencia Cooperativa. "Ormaetxea, de principio a fin toda una vida cooperativa" es un trabajo realizado por Isabel Uribe y Armin Isasti y en él se destilan los valores vitales de Ormaetxea, así como su enorme capacidad de trabajo y su talento innato para llevar proyectos a la práctica.

# JOSE MARI ORMAETXEA: KOOPERATIBISMOA, BIZITZAREN ARDATZ

## ULGORREN FUNDATZAILE BATEN BIOGRAFIA

Azaroaren 4an, José Mari Ormaetxearen "biografía dialogada" aurkeztu zen. "Ormaetxea, kooperatibismoa bizitza osoaren ardatz" Isabel Uribek eta Armin Isastik egindako lana da, eta bertan Ormaetxearen bizi-balioak, lanerako gaitasun handia eta proiektuak gauzatzeko berezko talentua agertzen dira.






17




18

## MONDRAGÓN CITY CHALLENGE (I)

EMPRENDIZAJE Y CULTURA COOPERATIVA

Este torneo internacional desea fomentar la cultura del emprendimiento y los valores cooperativos entre jóvenes. La primera edición contó con 279 participantes, de entre 16 y 24 años, procedentes de Chile, Colombia, EE. UU., Corea del Sur o México, entre otros. Los equipos ganadores presentaron una idea de empresa cooperativa para intermediar con los agricultores y vecinos de Tolosaldea, y un proyecto para facilitar el día a día a las personas que padecen baja visión a través de diversas soluciones.

## MONDRAGÓN CITY CHALLENGE (I)

EKINTZAILETZA ETA KULTURA KOOPERATIBOA

Nazioarteko txapelketa honek gazteen artean ekintzailetzaren kultura eta kooperatiben balioak sustatu nahi ditu. Lehen edizioan 16tik 24 urtera bitarteko 279 parte-hartzaile izan ziren, Txile, Kolonbia eta EEkoak. AEB, Hego Korea edo Mexiko, besteak beste. Talde irabazleek enpresa kooperatiboaren ideia bat aurkeztu zuten, Tolosaldeko nekazari eta bizilagunekin bitartekari-lanak egiteko, eta ikuspegi txikia duten pertsonei eguneroko lana errazteko proiektu bat, hainbat konponbideren bidez.

## PREMIO “ONCE SOLIDARIOS EUSKADI”

POR LA INCLUSIÓN SOCIAL, LA IGUALDAD Y LA SOLIDARIDAD

Un reconocimiento de los que agradan, que anualmente otorga la ONCE y que es una cita con la inclusión social y la igualdad. MONDRAGON recibió el premio en la categoría de empresas de Economía Social. Metro Bilbao, Har-Eman y EITB también recibieron su “estatuilla” en la edición de este año.

## “SOLIDARIOS ONCE” SARI BANAKETA

GIZARTE-INKLUSIOA, BERDINTASUNA ETA SOLIDARITATEAGATIK

Esker ona, urtero ONCEk ematen duena eta gizarteratzeko eta berdintasunerako hitzordua dena. Gizarte Ekonomiako enpresen kategorian jaso zuen MONDRAGON saria. Metro Bilbaok, Har-Emanek eta EITBk ere jaso zuten beren “estatuatxoa” aurtengo edizioan.



19

## LA ESCASEZ DE MICROCHIPS

### UNA CRISIS MACRO

El uso cada vez mayor de la inteligencia artificial, los servicios en la nube, el incremento de las ventas de ordenadores y otros artefactos electrónicos y la pandemia han creado el contexto propicio para que la crisis de microchips haya afectado a muchos sectores de actividad. La automoción se ha llevado la palma, con interrupciones en las cadenas de producción de muchos fabricantes. Los expertos coinciden en señalar que la escasez de chips no se resolverá rápidamente.

## MIKROTXIP ESKASIA

### KRISIALDI MAKROA

Adimen artifiziala gero eta gehiago erabiltzeak, hodeiko zerbitzuek, ordenagailuen eta beste tresna elektroniko batzuen salmentak handitzeak eta pandemiak, mikrotxipen krisiak jarduera-sektore askori eragiteko testuinguru egokia sortu dute. Automobilgintzak jasan du kalterik handiena, fabrikatzaile askoren ekoizpen-kateetan etenaldiak izan baitira. Adituak bat datoz esatean txipen eskasia ez dela berehala konponduko.

## MONDRAGON Y EL EUSKERA

### HOJA DE RUTA HACIA LA NORMALIZACIÓN

Las cooperativas avanzan hacia la normalización del euskera en el ámbito laboral. Desde la puesta en marcha del Certificado Bikain, las empresas integradas en la corporación ya tienen un total de 54 certificados, incluido el de oro logrado por Ategi en la última edición celebrada el pasado 20 de diciembre en el Palacio Europa de Vitoria-Gasteiz.

## MONDRAGON ETA EUSKERA

### NORMALIZAZIORAKO IBILBIDE-ORRIA

Kooperatibek aurrera egiten dute lan-eremuan euskararen normalizaziorantz. Bikain ziurtagiria abian jarri zenetik, korporazioko enpresek 54 ziurtagiri dituzte dagoeneko, Ategik abenduaren 20an Gasteizko Europa Jauregian lortutako urrezko ziurtagiria barne.

20



2021

TUlankide

# 10

## AHOTS



## *“La Inteligencia Artificial va a ser una palanca tremenda de desarrollo de competitividad”*

Nerea Aranguren, vicepresidenta del BAIC (Basque Intelligence Center)



## *“Gure izaera kooperatiboa aliatua da lanaren etorkizunaren trantsiziorako”*

Zigor Ezpeleta, MONDRAGON Korporazioko Gestio Sozialeko zuzendaria



## *“Continuamos tratando de eliminar barreras”*

Izaskun Santamaria, responsabldde Comunicación Social y Marketing INterno de Eroski, con motivo de la cita por la igualdad y diversidad Complices



***"Se esperan interrupciones en el suministro de microchips hasta finales de 2022"***

Josu Luengo, responsable del área de Materias Primas de Ategi.



***"Tras la pandemia, el cooperativismo ha salido reforzado, demostrando ser garante de empleo estable y de calidad"***

Rosa Lavín, presidenta de la Confederación de Cooperativas de Euskadi-Konfekoop



***"Kooperatiba-esperientziaren sorreran eta garapenean inplikatu zen belaunaldia goratzea izan da helburua"***

Igor Ortega, Lanki Ikertegiko ikertzailea. Bikain cum laude doktore tesiagatik.



***"El euskera necesita discursos que conecten con las nuevas generaciones"***

Abel Irizar, Emun



**"Iraunkortasunean, balio eta erronka berriak ari dira sortzen, eta horietan gehiago eta hobeto lan egin behar dugu"**

Ibon Antero, MONDRAGONeko Iraunkortasun eta Eraldaketa Sozialaren arduraduna



**"No prevemos ningún cambio nuclear en nuestro sistema de pensiones"**

Alicia Bollar, directora de Afiliación, Cotizaciones y Pensiones de LagunAro.



**"Krisiak gure giza izaeraren mugez jabetzen gaitu"**

Joseba Madariaga, Laboral Kutxako Ikerketen departamentuko zuzendaria eta Deusto Business Schooleko irakaslea.

2021

TUlankide

# TU lankide

LA ACTUALIDAD DE CORPORACIÓN MONDRAGON

MONDRAGON KORPORAZIOAREN AKTUALITATEA

# TU LANKIDE 2021: la actualidad cooperativa

TU Lankide ha seguido la actualidad cooperativa desde diversos soportes: revista en papel, de carácter trimestral, web (www.tulankide.com), redes sociales y boletines.


TU lankide
PRIMER TRIMESTRE 2021 LEHEN HIRUHILEKOA

LAGUNARO 2024

LAGUNARO ENCARA EL CICLO ESTRATÉGICO CON NOVEDADES QUE REFUERZAN EL CUIDADO DE SU COLECTIVO, LA FORTALEZA DE LA ENTIDAD Y SU COMPROMISO CON LOS RETOS DE LA SOCIEDAD.

616

LABORAL KUTXA 87 millones de beneficio en 2020, y una provisión extraordinaria de 65,7 millones. TAJO abre una nueva planta en Polonia. ARANTZAZULAB egitasmoa abian da. GOIMEK llega a Marte en el Perseverance de la NASA. MONDRAGON ASSEMBLY saritua *Euskadi Avanza* sarietan. ORONA FUNDAZIOAK eta Chillida Lekuk *Osasun leku* ekimena aurkeztu dute.

IRAUNKORTASUNA ETA KOOPERATIBAK 40

*MONDRAGON SUSTAINABILITY ACADEMY*
IRAUNKORTASUNERAKO PRESTAKUNTZA-PROGRAMA ABIAN DA

www.tulankide.com — LA REVISTA DE MONDRAGON TALDEKO ALDIZKARIA


TU lankide
SEGUNDO TRIMESTRE 2021 BIGARREN HIRUHILEKOA

MONDRAGON SOSTENIBLE

LA SOSTENIBILIDAD ES UNO DE LOS EJES ESTRATÉGICOS DE MONDRAGON PARA EL FUTURO, CON LA IDEA DE DEJAR UN MODELO DE DESARROLLO MEJOR PARA LAS PERSONAS Y EL PLANETA.

617

EKILUZ Repsol y Krean promueven cooperativas ciudadanas de generación de energía renovable. AUSOLANEK badauka bere fundazio propioa. LAGUNARO compensa con 11,3 millones las horas perdidas por la Covid-19 EUSKARAren plan estrategiko korporatiboa onartuta. LEARTIKER foku anitzeko zentro teknologikoaren akreditazioa lortu du. MONDRAGONen Kongresua uztailaren 21ean izango da, Kursaalean.

MONDRAGON-ONCE AKORDIOA 7

GIZARTE-EKONOMIAKO ERREFERENTEAK DIRA, ETA BAT EGITEN DUTE PRESTAKUNTZAREKIN, ENPLEGUAREKIN ETA TEKNOLOGIAREKIN ZERIKUSIA DUTEN ALDERDIAK BULTZATZEKO.

Imagen del barrio Coronación, en Vitoria-Gasteiz, en el que varias cooperativas han intervenido para transformar este espacio en un entorno más verde y sostenible.

www.tulankide.com — LA REVISTA DE MONDRAGON TALDEKO ALDIZKARIA


TU lankide
TERCER TRIMESTRE 2021 HIRUGARREN HIRUHILEKOA

IKASTURTE BERRIA

LOS CENTROS EDUCATIVOS DE MONDRAGON INICIAN UN NUEVO CURSO APOSTANDO POR LA PRESENCIALIDAD PLENA Y REFORZANDO LOS VALORES DIFERENCIALES DE SUS PROPUESTAS.

618

ULMA 60 años de compromiso y trabajo cooperativo. COPRECIk 75 milioi euroko inbertsioa egingo du mundu mailako hornitzaile gisa hazteko. DANOBATGROUP destinará 600.000 euros a proyectos de cooperación social. BAIC nace para liderar e impulsar el desarrollo de la Inteligencia Artificial en Euskadi. LORAMENDI & AURRENAK colaboran para dar una mejor respuesta a sus clientes. MONDRAGON UNIBERTSITATEA entre las 10 mejores universidades del Estado.

ARIEL GUARCO, PRESIDENTE DE LA ALIANZA COOPERATIVA INTERNACIONAL 18

"LA RECETA PARA LOS DESAFÍOS QUE NOS PRESENTA EL MUNDO ES LA COOPERACIÓN".

* Un grupo de estudiantes de la Facultad de Humanidades de Mondragon Unibertsitatea en los pasillos del recién renovado edificio Dorleta, en Eskoriatza (Gipuzkoa).

www.tulankide.com — LA REVISTA DE MONDRAGON TALDEKO ALDIZKARIA


TU lankide
CUARTO TRIMESTRE 2021 LAUGARREN HIRUHILEKOA

EL FUTURO DEL TRABAJO

LA DIGITALIZACIÓN Y LA TRANSICIÓN VERDE IMPACTARÁN CONSIDERABLEMENTE EN EL ÁMBITO DEL TRABAJO CON LA DESAPARICIÓN DE MUCHOS PUESTOS Y LA APARICIÓN DE NUEVOS PERFILES PROFESIONALES.

619

CIKAUTXO 50 urte, konpromisoa eta berrikuntza hizpide hartuta. EKILUZ crea en Arteixo la primera comunidad energética de Galicia. AUSOLAN y BCC Innovation replantean las recetas tradicionales en los comedores escolares. ERREKA 60 urteko ibilbidea ospatzen ari da. EROSKI online supermerkaturik onena, bosgarren urtez jarraian. MONDRAGON Korporazioko Euskara Batzordea abian da. IKERLAN colabora con Intel para mejorar las comunicaciones inalámbricas en la industria.

JOSU LUENGO ATEGI 52

"SE ESPERAN INTERRUPCIONES EN EL SUMINISTRO DE MICROCHIPS HASTA FINALES DE 2022".

www.tulankide.com — LA REVISTA DE MONDRAGON TALDEKO ALDIZKARIA

# tulankide.com

**183.325**
bisitari 2021ean.

**3.400**
harpidedun buletinean

**+6.000**
jarraitzaile sare sozialetan



# 2021

IRUDIETAN
EN IMÁGENES

TUlankide